

EUSKOTRENEKO BILBOKO TRANBIAK MARTXOAREN 21EAN ETA 22AN ORDUTEGI MURRIZTUAREKIN ZERBITZU BAT ESKAINIKO DU

Tranbia unitateak larunbatean eta igandean, martxoaren 21ean eta 22an, 30 minutuz behin ibiliko dira.

COVID-19a dela eta, alarma egoeran zehar abian jarritako zenbait neurrien eskaintzaren egokitze prozesuan, Euskotrenek larunbatean, martxoaren 21ean, eta igandean, martxoaren 22an, Atxuri eta La Casilla artean, noranzko bietan, 30 minutuz behin tranbien zerbitzu murriztua eskainiko du. Atxuritik, zerbitzua goizeko 6:58an hasiko da eta 22:58an bukatuko da, La Casillara doan azken zirkulazioaren irteera ordua. La Casillatik, zerbitzua 7:29an hasiko da eta 23:26an bukatuko da (Atxurira doan azken zirkulazioa).

Euskotrenek gogorarazten du lanegunetan Bilboko Tranbia zerbitzua erdira murriztu dela. Atxuritik, tranbia 20 minutuz behin zirkulatzen du 5:58ak 21:58ak bitartean (azken zerbitzuak 22:28an eta 22:58an). Kontrako noranzkoan, La Casillatik, zerbitzua 6:20an hasten da, 20 minutuz behin zirkulatuz 22:29ra arte (azken zerbitzuak 23:01ean eta 23:26an).

Erabiltzaileek zerbitzuen ordutegiak honako lekuetan ikus ditzakete: www.euskotren.eus, Euskotreneko APP ofiziala eta twitter kontua @euskotrenEJGV. Horrez gain, eskura dute Euskotreneko informazio telefonoa: 944 333 333.

Igorpen data: 2020-03-20



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS